

Folklore euskal curriculumaren globalizatzailea

(Folklore, the globalising factor of Basque folklore)

Legorburu Arzamendi, Mikel

Eusko Ikaskuntza

Miramar Jauregia – Miraconcha, 48

20007 Donostia

BIBLID [1137-859X (2001), 7; 7-12]

Folkloreak eta, oro har, gure gizartearen altxor estimagarria dugun ohituren mundua nolabait gorde eta gugan iraun dezan Eusko Ikaskuntzako Folklore Sailean eraturako talde lanak curriculuma prestatzeari ekin zion Hezkuntza alorrean zehaztu asmoz. Egitasmoaren lehen urratsak aurkezten zaizkigu komunikazio honetan, hiru dantza motei eskeinitako unitate didaktikoak hain zuzen ere: 1) dantza sozialak (fandango, arin-arin eta biribilketa); 2) jauziak; 3) makil-dantzak. Hauen berezitasuna zeran datza, ohiko eskola-gaiek bere baitan jaso dezaketela folkloreaken mamia (euskara, matematika, gizarte zientziak, musika, hezkuntza fisikoa...).

Giltz-Hitzak: Folklore. Dantza. Unitate didaktikoak. Curriculum. Fandango. Arin-arin. Biribilketa. Jauziak. Makil-dantzak.

El grupo de trabajo constituido en la Sección de Folklore de Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos para contribuir a la conservación y permanencia entre nosotros tanto del folklore como, en general, del valioso tesoro que constituye el mundo de las costumbres, ha abordado la preparación del curriculum para concretarlo en el área de la Educación. En la presente comunicación se da cuenta de los primeros pasos del Proyecto, concretamente las unidades didácticas dedicadas a tres tipos de bailes: 1) bailes sociales (fandango, arin-arin y pasacalle); 2) saltos; 3) paloteados. La particularidad de los mismos consiste en que las asignaturas habituales (euskara, matemáticas, ciencias sociales, música, educación física...) pueden recoger en sí mismas la esencia de este folklore.

Palabras Clave: Folklore. Baile. Unidades didácticas. Curriculum. Fandango. Arin-arin. Pasacalle. Saltos. Paloteados.

Le groupe de travail constitué dans la Section de Folklore d'Eusko Ikaskuntza-Société d'Études Basques pour contribuer à la conservation et la permanence parmi nous aussi bien du folklore que, en général, du précieux trésor que constitue le monde des coutumes, a abordé la préparation du curriculum pour le concrétiser dans le domaine de l'Éducation. On rend compte, dans ce communiqué, des premiers pas du Projet, plus précisément des unités didactiques dédiées à trois types de danses: 1) danses sociales (fandango, arin-arin et pasacalle); 2) sauts; 3) paloteados. Leur particularité consiste en ce que les matières habituelles (euskara, mathématiques, sciences sociales, musique, éducation physique...) ont la possibilité de recueillir en elles-mêmes l'essence de ce folklore.

Mots Clés: Folklore. Danse. Unités didactiques. Curriculum. Fandango. Arin-arin. Pasacalle. Sauts Paloteados.

Kultura herrikoari, tradizionalari, hezkuntzan tokia badagokiola onartua ere bazaio nonahi eta noiznahi, ez da berezko curriculumik ikastetxeren eskutan, eta dagoeneko folkloreaken curriculumak osatzearen asmo eta helburua martxan dabilela jakina da alor honetan ari direnen artean.

Honako honetan, bada, “Folklore eta Hezkuntza Proiektua” deitzen diogunaren oinarritzko aurkezpenaren laburpena eskainiko dizuet.

Euskal curriculumari ekiteko asmoak dastatu izan dira maiz gure artean. Saiok eman dira, aproposagoak ala desegokiagoak, baina garatzeko premia hortxe genuen, eta dugu.

Honelako testuinguruan dantzari eta musikari batzuren artean Hezkuntza mailan folklorea eta herri-kultura tradizionala era normalizatu batean txertatzearen beharra ikusi eta proiektuari ekin genion. Topagunea Eusko Ikaskuntza genuen, eta oinarri bezala Folklore saila.

Beraz, Folklore sail honek helburuak argitu eta lanari eusten dio, proiektua gauza dadin.

Euskara eta Zinema sailak ere parte hartzen ari dira diogun proiektu honetan.

Honako hauek osatzen dugu lan-taldea:

- Josean Quijera (proiektuaren bultzatzaile nagusia, koordinatzailea eta hasierako unean Folklore saileko zuzendaria); besteak beste aspektu pedagogikoak landu ditu.
- Mertxe García (egungo Folklore saileko zuzendaria). Musika arloa jorratu du batez ere, katedratikoa baita.
- Josu Larrinaga. Irakasle hau koreografian aritu da batez ere.
- Oihane Agirre. Bideo grabazioak bere ardurapekoak ditugu.
- Nekane Osa irakaslea, Euskararen gainean aritzen da, besteak beste erredakzio estiloa, itzulpena etab. bere gain dituelari. Eta,
- ni neu. Unitate Didaktikorako aukeratutako dantzen ingurune geografikoa eta historikoa lantzen dut.

Gure betebeharrak nagusienak irakaskuntzan oinarritzen direnez ulertuko duzue hobe gure egitasmoaren helburua.

Musika arloan gertatzen denaren antzekotasunak dituzten zailtasun batzuk aurkitzen genituen. Folklorea eta tradiziozko kultura herrikoia ez zen/ez da nahikoa lantzen ikastetxetan. Ez nahikoa, ezta era aproposan ere. Materialik? Apenas aurki liteke. Dagoena sistematizatu gabekoa da. Gai

hauetaz irakatsi nahi duenak izaera baikorrekoa izan beharko du, animosoa eta dinamikoa, lanari inolako beldurrik ez diona, abenturazalea eta ausarta ere nonbait. Kasu bakan batzuk ezagutzen ditugu inguru honetan saiakerarik egin izan dituztenak.

Beraz, gaia egituratu eta nolabaiteko forma eta metodologia aplikatuz sistematizatu nahi izan genuen.

Hala, 1994ean data dezakegu proieктоaren hasiera.

Zenbait gestio egin ondoren, proieктоa Euskal Herriko erakundeen bitartez gauza zedin bultzatu genuen, euskara hutsean burutzeko asmoa baike-nuen... baina ezean, Europa mailako bidea jorratu beharra izan genuen. Nolanahi ere, azkenik Bruselaren onespena jaso, eta lanari ekin genion. 1996a genuen.

– 1. eta 2. Unitate Didaktikoak 1997an burutu ziren.

– 3. Unitate Didaktikoa 1998rako zegoen aurreikusia, eta aurrean bertan amaitua dugu.

Aipaturiko Unitate Didaktikoek honako gaiak eusten diete:

Aurrenekoa:

– Fandangoa, Arin-arina eta Biribilketa. Oro har, Euskal Herri zabaleko dantza zikloa. Oinarri gisa aukeratutako plaza dantzak dira, ikuspegi orokorraz jabetzen lagunduko dutenak. Ondoren zenbait tokitako folklorea jorratze-ko, euskal ohituren aberastasunari helduko zaio, piskana-piskana euskal lurralde historiko denak eta bailara ugari landuko genituzke, dantza motetan ere tipologia aniztasun aparta baitu Euskal Herriak.

Bigarrena:

– Jauziak. Iparraldeko dantza multzo esanguratsua. Eredu gisa bat bereiz-tearren Luzaidekoa aukeratu genuen.

Eta hirugarrena:

– Makil-dantzak. Mota honetako hainbeste dantzen artean hiru aukera-tu genituen, elkar konparatzeko aukera ederrak emango lizkigukete-nak: Amezketa eta Abaltzisketako txantxoena, Berakoa eta Otsagikoa.

Dantza hauek ikasteko errazak direlako izan dira aukeratuak.

Nori zuzenduak ote dira Unitate didaktiko hauek? Tokian tokiko berezita-sun eta ñabardurak kontutan izanik, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzendu-

takoak dira batez ere. Hala ere oinarrizko materiala denez, konplikazio handirik gabe egoki daitezke beste mailetara.

Unitate bakoitzaren osaketari dagokionez, zera bereizi beharko litzateke, batetik forma, eta edukia bestetik:

- Forma aldetik, lau osagarri dituela:
 - Irakaslearen koaderno: ± 100 orrialdetako liburua.
 - Ikaslearen lan-koaderno: ± 50 orrialde dituen liburuska.
 - Bideo-zinta: ± 30 minutu, hiru zatitan banatuak:
 - 1) Aurkezpena;
 - 2) Aukeratutako dantza era bizian, jatorrizko herriko jaietan;
 - 3) Estudioan filmaturiko hurratsak, era didaktikoan eskainiak.
 - CDa: dantzari buruzko musika jasotzen du, eta estudioan grabatutako da.
- Eduki aldetik, halako gaiak ukitzen dira, globalizatzaile era borobilduz, honako helburuarekin, ordutegi zehatzik ez duen gai hau, bestelako gaietan txertatua lantzea:
 - Musika (erritmoa, tresnen azterketa...).
 - Koreografia, Soinketa eta Psikomotrizitatearekin bat.
 - Geografia (fisikoa, demografikoa, ekonomikoa, politikoa, kulturala). Aukeratutako dantza ematen den inguruko geografiaren ezaugarriak landuz.
 - Historia, era berean, dantzaren delako inguruaren historiaren zertzeladak adieraziz.
 - Euskara, inguru bereko euskalkia, hiztegia, egiturak... landuz.
 - Matematika, grafikoak, estatistikak, eta bestelako ariketak, dantzen inguruko zenbakiez.
 - Plastika, tresnaren bat landuz.
 - Erljioa, Janzkera, Gastronomia eta oro har,
 - Ikerketa.

Proiektua Hezkuntza Sarean txerta ahal bagenezake, ikasleen artean ezezaguna den aberastasun kultural hori, gaur egun kasu askotan kolokan duguna, ezagutzera, baloratzera, albokoei eta ondorengoei transmititzera eta batez ere norberak gozatzera eramango gintuzke.

Ondorioak atera nahian halako alderdi baikor batzuk aipatuko nitzizueke Unitate Didaktiko hauei dagokionean.

Zalantzarik gabe, baliabide egokiak dira gure herri kultura ikasleen curriculumean txerta ahal izateko.

Ideia honen aldeko zenbait irakasle, gai hau nolabait lantzen aritu direnak berekasa animoso agertuko dira lagundu diezaiekeen materiala erabilgai ikusterakoan. Lehen esan bezala, hiru Unitate Didaktiko prest ditugu jadanik. Hala ere, dagokiona aipatu beharko da geroxeago, argitaratzea dela eta.

Orainarte ez da sistematikoki landu folklorea oinarrizko irakaskuntzan, alde batera uzten dugularik, gainera, helduagoen irakaskuntza. Bide berri baten agerpena izango da.

Gure helburuei ekiteko hiru eratako hartzaileak aurrikus daitezke:

- Euskal kultura tradizionala berean eta bizi eusten dutenak.
- Hiritarrak eta komunikabide nagusien eraginpekoak izateagatik orain dela oso urte gutxi arte bizitako ohiturak galduak dituztenak, edo are gehiago, ezagutu ere egiten ez dituztenak.
- Aurreko bien bitartekoak, beltza eta txuriaren artekoak ñabardura asko izan baititzake.

Hiru hartzaile motakoei egokitu daitekeen materiala izango da.

Ikasleez gain, aipagarrienak diren arren, izatez, irakasle taldearengan eta gurasoengan ere eman daitekeen eraginaz ari natzaizue baita ere.

Bestela ere, alderdi ezezkorrik ere izan daiteke:

Hainbat kasutan, hiritan batez ere, ikasleak arlo honetatik urrun xamarak ikusten baditugu ere, zenbaitetan irakasleak izaten dira/gara zailtasunak jartzen dituztenak/ditugunak. Estereotipozko programaketak berregituratzeko, arrazoiak baino, askotan, aitzakiak bilatzen ditugu. Esate baterako:

- Norberaren gaitasun eskasia: askotan “gai” gara, eta ez garen kasutan erraz egunera gintezke. Arlo honek ez du hainbeste esijitzen. Hala da. Borondatea behar da, eta... benetan emaitza emankorra ondoreztatzen da.
- Denbora-mugak: hauek errealak dira, bai. Baino ez luke herri kulturak bakarrik nozitu beharko denbora-eskasia. Ikasgaien ordu-banaketen garaian, eta lehenetasunak balantzan jartzerakoan ongi neurtu beharko genuke zein gairi laburtu ordutegia.
- Desegokitasuna: batzutan igorle edo/eta hartzaile aldetik kultura tradizionala, folklorea, etnologia eta antropologiarenganako deskonexioa

eman daitekeelako. Ez da honen beldurrik izan behar. Astakeriarik egiten ez bada, gainditzen den desoreka da.

– Legalitatea: akaso?.. Agian zenbait argitaletzek ez dutelako gaia jorrazten?

– Lotsa... edo: orain arteko eredutatik “desbideratzeagatik”, ohiko programaketa ez aldatzeagatik...

Azkenik, prozesu honen urrats nagusi baten aipamena zor dizuet, materialaren zabaltzearena.

Berez, orain arte burututako hiru Unitate Didaktikoez osatzen duten materialaren jabe eta arduraduna Eusko Ikaskuntza elkarteak dugu. Ikerketako lanekin ez bezala, tratamendu berezia du honek. Haien Eusko Ikaskuntzan bertan eskura daitezke, argitaratuak izan ala ez; hauek, berriz, zuzenean argitaratzeko sortua den materiala kontsideratzen denez, ez dago ukitzerik, argitaratu bitartean behintzat.

Europako zenbait folklorista esanguratsuk egin izan diguten balorazioa benetan baikorra izan arren, lan horiek kajoi edo apalen batean izango dira. Momentuz penagarria. Baina hala ere, argia ikusiko dutelaren itxaropenik ez dugu galdu nahi.

Dagoeneko burutu izan dira zenbait bilera eta eztabaida erakunderen batek Unitate Didaktikoak argitara ditzan, eta ez hauek bakarrik, segidan etor litezkeenak ere.

Hitzalditxo honekin amaitzeko zera esan behar dizuet: orain artean lanean aritu garenak prest agertzen garela horretan bertan jarraitzeko, beste Unitate batzuk prestatzeko asmotan...